



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2024ko otsailaren 8koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Santurtziko (Bizkaia) «SAE-3 Deposituak» sektorearen Plan Partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2023ko urriaren 24an, Santurtziko Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, Santurtziko (Bizkaia) «SAE-3 Deposituak» sektorearen Plan Partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Honako dokumentu hauek erantsi zitzaizkion eskabideari: planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak) V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea gauzatu du (2023ko azaroaren 28an hasita), halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Santurtziko Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, haren gainean interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egoki iritzitako oharra egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izateko arriskua dakartenean; horretarako, ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), baita haien aldaketa eta berrikuspenei ere, legezko edo erregelamenduzko xedapen batek edota Gobernu Kontseiluaren erabaki batek eskatuta prestatu baldin badira, baldin eta ingurumen-eraginaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.



Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasteko eskaerari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiaren gainekoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren gainekoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Santurtziko (Bizkaia) «SAE-3 Deposituak» sektorearen Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedurari dagokiona, ingurumen-ondorioetarako bakarrik eta ondoren azaltzen den modura:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Planaren eremua SAE-3 sektorea da. Gutxi gorabehera 59.000 m²-ko azalera duen eremu hori N-639 errepidearen ondoan dago, 3. kilometroaren parean. Hor zeuden zentral termikoko ziklo konbentzionaleko antzinako multzoak elikatzen zituzten fuel-deposituak, jada eraitsiak.

Eremu hori arautzen duen hirigintza-araudia Santurtziko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) da, martxoaren 12ko 140/1998 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsia izan zena (1998/06/22ko BAO, 116. zk.). Plangintza orokor horri jarraikiz, orain izapidetze bidean den Plan Partzialari dagokion eremuaren mendebaldea, antzinako zaborte-giaren, lurzoru urbanizaezin gisa dago sailkatuta. Era berean, Udal-planari jarraikiz, eremuaren ekialdeko parte sistema orokorren oinarritzko azpiegitura gisa kalifikatuta dago.

Era berean, aipatu behar da gaur egun izapidetze bidean dela Santurtziko HAPOren berrikuspena. Dokumentu horretan, «SAE-3 Deposituak» sektorea mugatzen da, lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen dena osorik. Ingurumen-organoak 2023ko azaroaren 13ko ebazpenaren bidez egin zuen ingurumen-adierazpen estrategikoa.

Planaren helburua da sektorearen antolamendu xehatua garatzea, plangintza orokorrak (udalean izapidetze-bidean denak) xedatutakoa bete dadin. Sektore hori deskontaminatu eta leheneratu nahi da, ondoren, jarduera logistikoko enpresak eta bulegoak hartuko dituzten arkitektura bereziko eraikinak eraiki ahal izateko.

Aurkeztutako dokumentazioari jarraikiz, Iberdrolaren igerileku zaharrek okupatutako lurzoruak (Iparragirre hiribidea 56) ere eskuratuko dira. Lurzoru horiek eraldatu eta laga egin beharko dira, Plan Partzialaren tramitaziotik bereizitako prozedura baten bidez, ELSO-1 Espazio Libreen Sistema Orokorrean integratu daitezkeen.

Planak antolamendu hau proposatzen du, oro har: eremuak sarbide bakarra izango du N-639 errepidetik. Bide horrek eremuaren erdigunearaino eramango du. Handik, barneko zenbait bide pribatuk jarduera ekonomikoak gauzatzen diren lurzatiak konektatuko dituzte. Zehazki, bulegoen lurzati bat eraikitzea aurreikusi da sartzeko bidearen ondoan, eta lurzati logistikoa bana sektorearen mutur bakoitzean.

Mendebaldeko muturreko lurzatiak eraikin bakarra izango du, eta ekialdeko lurzatiak, berriz, *a priori* bi eraikin izango ditu. Azkenik, eremuaren hego-mendebaldeko muga, mendia mugakide duena, berdegune libre gisa definitzen da.

Alternatibei dagokienez, Hasierako Dokumentu Estrategikoan (HDE) bi garapen-alternatiba aztertu dira, 0 alternatibaz (esku ez hartzea) gain. 0 alternatiba baztertu egin da, ez lukeelako egungo ingurumen-egoera hobetuko. Garapen-alternatibei dagokienez, haien arteko aldea, funtsean, sartzeko-bidearen eta lurzati logistikoaren konfigurazioan datza; konfigurazio horrek baldintzatu egiten du eraikinen bideragarritasun funtzionala eta espazio libreen banaketa. Azkenean, arestian deskribatutako 6. alternatiba hautatu da.

Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, kasuan kasuko hirigintza-jarduketako proiektuen, birpartzelazio-proiektuen eta urbanizazio-proiektuen bidez garatuko da plana.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horiek indarrean jarraitzen dute 2030 Ingurumeneko Esparru Programa eraldatzeko proiektuetan. Gainera, kontuan hartu beharko dira planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak.

Halaber, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatetik babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitata eta espezieak, natura-ingurunea eta konektagarritasun ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- e) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- f) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, baita baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- h) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Hauek sustatzea: energia aurrezte, energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenrazioa.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketa-erikiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta aldaketara egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-gune garrantzitsuak

Planaren eremua SAE-3 sektorea da; sektore horrek, gutxi gorabehera, 59.000 m²-ko azalera du. Iparraldean, espazio urbanizatuak ditu mugakide; aldamenean, Santurtziko portuari lotutako industriak, eta hegoaldean, landa-lurzoruak, Serantes mendiaren hegalei dagozkienak.

Planari dagokion eremuak itxura artifizializatua du; alde batetik, ekialdeko zatian lau fuel-depositu handi ezarri zirelako (gaur egun hormigoizko zola bat baino ez da kontserbatzen); bestetik, mendebaldeko muturra zabortege gisa erabili zelako (gaur egun ez da erabiltzen, eta landare erruderalez estalita dago). Eremuak perimetro-hesia du. Hesi hori bat dator, funtsean, eremuaren mugaketarekin.

Eremua Ibaizabalgo Unitate Hidrologikoan dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren barruan. Zehazki, «Nerbioi kanpoaldea drainatzea trantsizioa» (ES111O000031) ur-masaren isuri-arroan dago. Ez da ibai-ibilgurik igarotzen eremutik edo haren inguruetatik. Itsasertzaren muga, gutxi gorabehera, 700 metro ipar-ekialdera dago, eta izapidetze-bidean den Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoaren muga, berriz, eremutik 100 bat metrora, ipar-ekialdera.

Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren kartografiaren arabera, eremuaren zati handi bat gune garatuak dira; aitzitik, mendebaldeko muturra, antzinako zabortegeiarekin eta haren inguruneekin bat datorrena, ingurumen-hobekuntzako eremu gisa identifikatuta dago. Ondoan, nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko eremuei (trantsizioko landa-paisaia) dagozkien eremu txikiak ere agertzen dira.

Eremu honetako material litologikoak tuparri-kareharrien, kareharritzko margen eta kalkareniten alternantzia dira, eta iparraldeko muturrean azaleko depositu antropogenikoak daude.

Aztertutako esparrua Hegoaldeko Antiklinorioa lurpeko ur-masaren gainean dago, eta ez dago interes hidrogeologikoko inongo eremutan kokatuta.

Landarediari dagokionez, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eremuan bi gune bereizten dira. Antzinako zabortegearen inguruan obra-hondakinak daude gaur egun, eta eremu hori zuhaixka-erako landarez estalita dago. Sasi ugari dago, bai eta flora exotiko inbaditzailearen aleak ere, *Cortaderia selloana* espeziearenak, kasurako. Bestalde, lehen deposituek hartzen zuten espazioa hormigoizko lauza batek estaltzen du orain, eta haren zirrikituetan landare erruderalak ageri dira. Azkenik, sartzeko bidearen ondoan eta eremuaren perimetroan, tamaina txiki eta ertaineko zuhaitz-alez osatutako heskaiak daude. Zuhaitz ale horiek makalak eta milazkak dira, batik bat, bai eta akazia faltsuak ere (*Robinia pseudoacacia*); azken hori espezie aloktono inbaditzailea da. Ez da identifikatu Batasunaren Intereseko Habitatik (BIH), ez eta flora-espezie mehatxaturik ere. Bertan dagoen fauna, batez ere, hiri-inguruko eremuei lotutakoa da, eta eremuan ez da identifikatu espezie babesturik.

Ez dago jasota interes geologikoko lekuri dagoenik, eta, era berean, ez da ukitzen naturagune babesturik, natura-intereseko beste ezein gunerik, EAEko Igarobide Ekologikoen Sareko elementurik, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan Babestutako Guneen erregistroko elementurik eta kudeaketa-plan bat duen fauna-espezie mehatxatuen interes bereziko eremurik. Aipatzekoa da hego-mendebaldean, eremutik 400 metrora baino gehiagora, Zierbenena eremua dagoela. Eremu hori naturagune garrantzitsuen katalogo irekian sartuta dago, eta EAEko azpiegitura berdearen barruan biodibertsitatearen erreserbatzat jotzen diren espazioen parte da.

Sektorean, ez da identifikatu kultur ondareko ezein elementu katalogatu.

Egoera akustikoari dagokionez, Santurtziko udalerriak zarata-mapa bat du, 2012. urtean egina. Azterlan horren arabera, Planaren eremuan identifikatutako zarata mailak ez ditu gainditzen 55 dB(A) ez egunez, ez arratsaldean eta ez gauez. Bestalde, Bizkaiko errepideen foru-sareko zarata-mapen arabera (2023), eremua N-644 errepidearen zortasun akustikoko eremutik (ZAE) kanpo dago, baina N-639 errepidearen ZAEren barruan sartzen da tarteka.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, eremuak ez du uholde-arriskurik, ez eta baso-suterik jasateko arriskurik ere, eta kutsadurarekiko kalteberatasun oso txikia eta txikia duten akuiferoak ditu azpian. Itsasertzeko LAParen arabera, mareei edo olatuei dagokienez, eremua ez dago klima-aldaketarekin lotutako arriskuen pean.

Alabaina, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan zituzten lurzoruen inbentarioko bi lurzati daude sektore horretan. 48082-00134 eta 48082-00028 kodeekin identifikatutako lurzati horiek zaborteziaren eremuan eta deposituen eremuan daude, hurrenez hurren, nahiz eta Planaren eremuaren mugetatik harago hedatzen diren. Lurzati horiek Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena dute, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Adierazpen horiek 2018ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez eman ziren.

Horrez gain, geoEuskadin eskuragarri dagoen kartografiaren arabera, eremuaren zati handi bat muturreko higadura-prozesuak jasaten dituzten eremuetan dago, eta SEVESO enpresen balizko istripuen eragin-zerrenda batzuen barruan kokatzen da. Repsol Butano da gertuen dagoen SEVESO enpresa, sektorearen mendebaldeko muturrarekin muga egiten baitu. Halaber, salgai arriskutsuen garraioarekin lotutako arriskuari dagokionez (errepideko garraioarekin lotutako arriskua txikitzen jo da, eta trenbidekoarekin lotutakoa ertaintzat), bide horien 200 m-ko eragin-zerrendetan kokatzen da eremua.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Eremuan ez da hauteman jarduketak egiteko eremu desegokirik, betiere aplikatu beharreko ingurumenari buruzko araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauei dagozkienak: itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren eta haren babes-eremuaren zaintza, naturaren zaintza, espezie aloktono inbaditzaileak, lurzoru kutsatuak, kutsadura akustikoa eta arrisku teknologikoak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatu ahal izateko. Bereziki kontuan hartu beharko da itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren mugatze-lerroaren eta lurzatiaren hurbiltasuna.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitu ondoren, Euskadiko Itsasertz Demarkazioaren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren eta Ihoberen erantzunak jaso dira.

Segidan, jasotako txostenetan adierazitako ingurumen-alderdirik nabarmenenak laburtuta daude:

- **Kultura-ondareari** dagokionez:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du planaren eremuan ez dela ikusten kultura-ondarearen gaineko eraginik.

- **Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren mugaketari** dagokionez:

Eusko Jaurlaritzako Itsasertz Mugarteak jakinarazi du Planaren agiri grafiko guztietan behar bezala adierazi beharko direla itsasertz lerroak, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren mugaketak, igarobide- eta babes-zortasunak, eraginpeko eremua eta itsasorako sarbideak. Era berean, txostenak babes-eremu bakoitzari aplikatu beharreko araudia jasotzen du oro har.

Horrez gain, Planaren hirigintza-arauetan berariaz jaso beharko da honako hau:

- Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren erabilera kostaldeei buruzko Legearen III. tituluaren xedatutakoari jarraikiz arautuko da. Edonola ere, jabari publikoko lur horietan gauzatu nahi diren jarduketak dagokien titulu gaitzailea izan beharko dute.
- Babes-zortasuneko zonako erabilerak Kostaldeei buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan xedatutakora egokituko dira, eta, beraz, zona horretan baimendutako erabilerak Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren baimena izan beharko dute.

- Igarobide-zortasunak eta itsasora heltzeko zortasunak errespetatzen direla bermatu beharko da, Kosteak buruzko Legearen 27. eta 28. artikuluetan hurrenez hurren xedatzen denaren arabera. Era berean, 30. artikuluan eraginpeko guneak dagokionez xedatzen diren baldintzak bete beharko dira.
- Kostaldeei buruzko Legea indarrean jarri aurretik zeuden obren eta instalazioen kasuan, jabari publikoan edo zortasun-eremu batean kokatuta egonik, Kostaldeei buruzko Legearen laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa bete beharko da.
- Saneamendu-sareko instalazioek Kostaldeei buruzko Legearen 44.6 artikuluan eta lege hori garatzen duen Erregelamenduan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte. Baldintza horiek betetzen direla bermatzeko, HAPOn egungo eta proposatutako saneamendu-sareen planoak aurkeztu beharko dira, non mugaketa-lerroak eta zortasunak irudikatuko diren.
- Muga horiek kontuan izan beharko dira edozein lurzorutarako, haien hirigintza-sailkapena eta kalifikazio urbanistikoa gorabehera, eta horrela jaso beharko da berariaz.

Plan Partziala garatzeko irizpideek, helburuek eta proposamen orokorrek bateragarriak izan behar dute Kostaldeei buruzko Legeak xedatutakoarekin. Nolanahi ere, Itsasertzaren eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiak eman beharko du garatzen den hirigintza-plangintzari buruzko iritzia, Kostaldeei buruzko Legearen 112.a) eta 117. artikuluek xedatutako txostenen bidez.

- **Lurzoruaren** okupazioari dagokionez:

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren txostenaren arabera, Planak dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruak baliatzen ditu, ez du ukitzen balio estrategiko handiko lurzorurik, eta ez du eraginik Nekazaritza eta Basogintzaren Lurraldeko Arlo Planean.

- **Iraganean kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzatiei** dagokionez:

Planaren esparruan dauden 48082-00028 eta 48082-00134 kodedun lursailak Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan zituzten lurzoruen inbentarioan daude, energia termikoaren ekoizpena eta era askotako hondakinen isurketak jasateagatik, hurrenez hurren. Horrela dago jasota lherberen txostenean, SANTURTZIKO ZENTRAL TERMIKOA – I. ETA II. UNITATEAK (SC-95/13-EG) eta SANTURTZIKO ZENTRAL TERMIKOA – ZABORTEGI-EREMUA (SC-84/07-EG) izeneko espedienteen esparruan. Bi espediente horietan, lurzoruaren kalitatearen adierazpena bana jasotzen da.

Era berean, sektorea urbanizatzeko egin behar diren lur-mugimenduei dagokionez, jarduketak egin dira SANTURTZIKO ZENTRAL TERMIKOA – PORTU GARBIA (EX3-0017/23-UG) espedientearen esparruan.

Jarraian laburbiltzen dira Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2018ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren ondorio nagusiak. Ebazpen horren bidez, Santurtziko (Bizkaia) udal-mugartean, Santurtzitik Zierbenara doan errepidean, Santurtziko zentral termikoko hondakinen biltegi gisa antzina erabilitako 48082-00134 lurzatiari dagokion lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiten da, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean araututako prozedurari jarraikiz:

- Kokalekua industria-erabilerarako lurzoru eraldatutzat eta erabilera horrekin bateragarritzat jo da.
- Etorkizunean lurzati horretako lurak mugitu beharko balira, hustu beharreko materialak kudeatzeko bidea horien karakterizazioaren bidez zehaztu beharko litzateke, honako manu hauen arabera: 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena, eta BATZORDEAREN 1357/2014 (EB) ERREGELAMENDUA, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen).
- Lurpeko uren kalitatea kontrolatzeko, beste bi kanpaina (goi-urak eta behe-urak) egin beharko dira. Hartutako laginen gainean, kokaleku horretan ingurumen-garrantzia duten kutsatzaileak aztertuko dira: metal astunak (As, Cd, Cu, Cr, Hg, Mo, Ni, Pb, Zn), TPH, PAH eta PCB, hau da, aurreko bi kanpainetako berberak.

- Bi kanpainen emaitzak ingurumen-organo honetara igorri beharko dira, eta hark erabakiko du, lortutako emaitzei jarraikiz, laginketekin jarraitu behar den edo kasuan kasuko neurri zuzentzaileak ezarri behar diren.
- Behe-uren kanpainen, esku hartzeko balioa gainditzeko duen PCB kontzentrazioa detektatu denez lurpeko uretan, arriskuen analisi kuantitatibo bat (AAK) egin beharko da, *on-site* zein *off-site* hartzaileentzako arriskuak identifikatu eta kuantifikatzeko. Alde horretatik, kontuan hartu beharko da, esate baterako, ukitutako piezometrotik ibaian behera baratze-eremu bat dagoela oso hurbil.

Lan horiek amaitzean, arriskuen analisi kuantitatiboan eta kontroletan lortutako emaitzak ingurumen-organoari jakinarazi beharko zaizkio, haien berri izan dezan eta balora ditzan. Emaitzen arabera, ingurumen-organoak lan gehigarriak ezarriko ditu, hala badagokio.

Jarraian, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2018ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren ondorio nagusiak laburbiltzen dira. Ebazpen horren bidez, Santurtziko (Bizkaia) Zentral Termikoaren 1. eta 2. multzoak partzialki desegin ondoren libre geratutako 48082-00028 lurzatiari dagokion lurzoruen kalitatearen adierazpena egin zen, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean araututako prozedurari jarraikiz:

- Kokalekua industria-erabilerarako lurzoru eraldatutzat eta erabilera horrekin bateragarritzat jo da.
- Etorkizunean lurzati horretako lurrak mugitu beharko balira, hustu beharreko materialak kudeatzeko bidea horien karakterizazioaren bidez zehaztu beharko litzateke, honako manu hauen arabera: 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena, eta BATZORDEAREN 1357/2014 (EB) ERREGELAMENDUA, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentaru hori hondakinei buruzkoa da eta zuzentaru jakin batzuk baliogabetu zituen).
- Eremu osoa hormigoizko zola batek estaltzen duenez, ez dira kontuan hartzen esposizio-bide hauek (zola horrek ezereztzen baititu): zuzeneko kontaktua, zorua ustekabearen irenstea eta partikulak arnastea.

Hori dela eta, bermatu beharko da estaltze-geruza hori beti egongo dela kokalekuan. Geroko lan batean geruza hori kentzen bada, hasierako egoerara itzuli beharko da, edo, hala badagokio, berriro egin beharko da arriskuen analisia, egoera berria ebaluatzeko.

Ihoberen txostenari jarraikiz, Planean aurreikusten den garapena kontuan hartuta, egungo lurzoruen erabilerak ez du aldaketarik izango, jarduera ekonomikoetarako lurzoru baita, eta lurzoruen kalitate-adierazpenaren arabera, Plan Partzialak aurreikusitako erabilera bateragarria da lurzoru horretan.

- Klima-aldaketari dagokionez:

Ihoberen txostenaren arabera, sektoreak izango duen landare-estalkiak (berdeguneak, zuhaitz-azalerak, etab.) klima-aldaketa arintzen lagunduko du. Nolanahi ere, iradokitzen du ezen Planaren dokumentuan klima-aldaketaren ikuspegia txertatu behar dela, eta, horretarako, antolamendu-irizpideen eta klima-aldaketaren artean dagoen lotura indartu behar dela.

Ihoberen dokumentu hauek hartu beharko lirateke aintzat udal-mailan klima-aldaketa nola arindu eta aldaketa horretara nola egokitu aztertzeko, bai eta istripu larriak edo hondamendiak gertatzeko arriskua aztertzeko ere: «EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa» <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/eaeko-udalerriek-klima-aldaketaren-aurrean-duten-kalteberatasunaren-eta-arriskuaren-ebaluazioa-3> eta «Euskadiko klima-aldaketaren egoeretan muturreko prezipitazio-gertaerei lotutako euri-uholdea» <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/euskadiko-klima-aldaketaren-egoeretan-muturreko-prezipitazio-gertaerei-lotutako-euri-uholdea>.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan behar du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Horren arabera, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak ondorengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabalatasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeinek dakarten ingurumenean ondorio kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, Azterketak labor-labor jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatu bitartean, Ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta jasagarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Adierazi beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespenez egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, Espainiakoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Nekazaritzaren eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Santurtziko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027).
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a.- Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Azterketak Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaquete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikoarekin (aurrerantzean, ILJP) eta haren Babes Eremuekin bat datozen jarduketa guztiak identifikagarriak izango dira, eta Planaren kartografian eta hirigintza-araudian kokatuko dira. Eusko Jaurlaritzako Itsasertz Mugartearen txostenaren arabera, Planaren dokumentazio grafiko guztietan honako hauek adierazi beharko dira: itsasertz lerroak, ILJPren mugaketa-lerroak, igarobide- eta babes-zortasunak, eraginpeko eremua eta itsasorako sarbideak.

Behar besteko xehetasunez deskribatuko dira Planak azkenean hartutako garapen-aukera eta haren ondoriozko jarduketa zehatzak, eta hartutako hirigintza-soluzioa justifikatuko da.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak, hala badagokio, Plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, eta garapen-baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta kalte gutxien sortzeko jarraibideak ezarri beharko ditu.

c. Ingurumenean eragina izateko arriskua dakarten Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta natura-baliabideen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko atalean azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera eta Planean ingurumen-eragin nabarmenak ekartzeko arriskua dakarten aurreikuspen eta jarduketak adierazi beharko dira. Informazio kartografikoa atxiki beharko da eta, behintzat, honako hauek

jasoko ditu: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, .pdf (geo-erreferentziatuta) eta *shape* geruzen formatuetan, berrikuspen teknikoko lana errazteko.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

- a. Azaletik deskribatuko dira Plana formulatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba ere hartuko da kontuan –esku ez hartzeko alternatiba–, erreferentziatutak hauxe hartuta: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea, planaren proposamenak aplikatu ezean.
- b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.
- c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.
- d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan agertuko dira.

6.2. Ingurumen-egoeraren zehaztapena

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera –alderdi nagusiak azalduta– Planaren afekzio-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eragin-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, Planaren ekintzek ingurumen-eragin nabarmenak izan ditzaketen gunetara mugatuta.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak bilduko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Gutxienez ingurumen-alderdi hauek hartuko dira aintzat:

- a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.
 - b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, Batasunaren intereseko habitatak, landaredia, mehatxatutako fauna eta flora espezieen banaketa-eremuak, naturagune babestuak, hezeguneak, interes geologikoko lekuak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.
- Illo horretatik, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-alternatibak zer landarediri eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita.
- Eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.
- c. Paisaia. Pertzepzio-ikuspuntutik intereseko elementurik dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, lurpeko uren kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta natura-baliabideen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki, urarena.

Arreta berezia eskainiko zaie lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoru inbentarioan sartutako lurzatiak egotetik eratorritako arriskuei. Ildo horretan, kasuan kasuko lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenetan xedatutakoa beteko da, hargatik eragotzi gabe Lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen zehaztapenak betetzea.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egoteko arriskua duten eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesa ematen dizkion arau-xedapena ere aipatuko da.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta laburki jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketak gauzatzea baldintzatu dezakete honako hauekin lotutako alderdiek: zuhaitzak, jabari publiko hidraulikoa eta ibilguak babestearekin, paisaiarekin eta kalitate akustikoarekin; hortaz, Azterketan aztertuko dira alderdi horiek.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer ondorio izan ditzaketen Planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer-nolako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinaziotik eratorritako ondorioak zehaztuko dira. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Planean horrela deskribatutako ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleitu zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Besteak beste, eragin hauek ebaluatuko dira bereziki:

- Hondeaketetatik eta lur-mugimenduetatik, sortutako obra-soberakinetatik eta aurreikusitako eraipenetatik eratorritako hondakinetatik eratorritakoak. Bereziki, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruaren inbentarioan sartutako lurzatietan planteatutako jarduketek dagokienez. Justifikatu beharko da jarduketa horiek bateragarriak direla eremuan identifikatu diren lursailtako lurzoruaren kalitatea adierazteko ebazpenetan ezarritako zehaztapenekin, bai eta, oro har, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearekin ere.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak ILJPren eta haren babes-eremuen gainean izan daitezkeen eraginak aztertuko ditu, eta justifikatu beharko du jarduketak bateragarriak direla Itsasertza Babestu eta Antolatze LPSean eta Kostaldeei buruzko Legean xedatutakoarekin, EAEko Itsasertz Mugartearen txostenean jasotako zehaztapenak kontuan hartuta.
- Planean klima-aldaketaren ikuspegia egokiro txertatu den baloratu beharko da, eta ikuspegi horrek Planean duen eragina aztertu. Zehazki, Ihoberen txostenari jarraikiz, Ihoberen dokumentu hauek hartu beharko lirateke aintzat udal mailan klima-aldaketa nola arindu eta aldaketa horretara nola egokitu aztertzeko, bai eta istripu larriak edo hondamendiak gertatzeko arriskua aztertzeko ere: «EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa» <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/eaeko-udalerriek-klima-aldaketaren-aurrean-duten-kalteberatasunaren-eta-arriskuaren-ebaluazioa-3> eta «Euskadiko klima-aldaketaren egoeretan muturreko prezipitazio-gertaerei lotutako euri-uholdea» <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/euskadiko-clima-aldaketaren-egoeretan-muturreko-prezipitazio-gertaerei-lotutako-euro-uholdea>.
- Espezie aloktono inbaditzaileak barreiatzeko arriskua aztertuko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak (KAH). Egiaztatu beharko da etorkizunean kalitate akustikoko helburuak bete ahal izango direla Planaren antolamendu-eremuan, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoari jarraikiz; gainera, ingurumen-azterketa estrategikoak informazio hau jaso beharko du:
 - 1 Soinu-iturrien analisia, arauaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - 2 Diseinu-aukeren azterketa bat, arauaren 39. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
 - 3 Kalitate akustikoko helburuak lortzeko behar diren neurrien definizioa, izapidetzen den antolamendu motara egokitua.
 - 4 Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskinaren I. zatiko A taulan ezarritakoaren arabera, kanpoaldean aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko garaieran neurtuko dira; leihodun fatxaden kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.
- Ustiapen-fasean, eremuan jarduera handitzearen ondoriozko eraginak izan daitezke, eta horrek hondakinen sorrera eta ur- eta energia-kontsumoa handitzea ekarriko du, bai eta eragindako mugikortasuna eta soinu-mailak handitzea ere. Ingurumen-azterketa estrategikoak ere aztertuko ditu inpaktu horiek.

b. Identifikatu eta kodetutako efektu bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - ✓ Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - ✓ Aurrakako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaildi dezakeenik.
 - ✓ Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-ondorioen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliko dira. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen eragin horien iragarpenean.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, saiatuko da lotzen plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen.

d. Adieraziko da detektatutako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi den Azterketaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-eragin kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-eragin garrantzitsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-, kultura- eta paisaia-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek aurreikusitako ingurumen-ondorioekiko koherenteak izan beharko dute. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatutako ondorioekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak (hala nola hondeaketak eta lur-mugimenduak) edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lursailak jarduketek, 2018ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez emandako lurzorua kalitateari buruzko adierazpenetan ezarritako zehaztapenak bete beharko dituzte, hargatik eragotzi gabe Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako beste xedapen batzuk bete behar izatea.

Era berean, Planaren esparruan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera: aipatutako ekainaren 25eko 4/2015 Legea eta ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua.

- Itsasertza Babestu eta Antolatze LPSean eta Kostaldeei buruzko Legean ezarritakoa betetzen dela bermatuko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak xehetasun-maila nahikoarekin identifikatuko ditu obren faseko neurriak, lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea murriztea saihesteko.

- Hirigintza-garapen berriak behar-beharrezko diren azaleretara mugatu beharko du zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko ditu (zoladura iragazkorak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abarrak); lehendik zegoen egoeraren aldean jariatzea handitzen bada, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko dute horien bitartez. Sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko du, halaber.
 - Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako leheneratzeekin, positiboa).
 - Obrek aldi baterako eragindako gainazalak eta esku-hartzerik egin gabe geratuko diren espazio libreetako eremuak landareztatzea xedatuko da, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta. Planaren ondoriozko hirigintza-garapena paisaian integratzeko irizpideak zehaztuko dira, berdeguneen tratamendu eta leheneratze egokirako neurri zehatzei dagokienez. Neurri horiek xehetasunez garatuko dira eremua urbanizatzeko etorkizuneko proiektuan.
 - Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri espezifikoak proposatu beharko dira natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako leheneratzeekin, positiboa).
 - Pasaia eta ingurumena leheneratzeko eta integratzeko neurriak zehazteko, kontuan hartuko dira lhobek plazaratutako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua»n adierazten diren irizpideak. Ildo horretan, landareztatze- eta/edo lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta abar.
 - Eremuan flora inbaditzailea detektatuz gero, Planari lotuta, flora aloktono inbaditzailea desagerrarazteko eta kontrolatzeko protokolo bat idatzi beharko da, hura garatzeko aurrekontu espezifiko bat jasota. Nolanahi ere, jarraibideak eta zehaztapenak jasoko dira Planaren eremutik flora aloktono inbaditzailearen aleak kentzeko, eta neurriak hartuko dira ez daitezen horrelakoak ingurunean hedatu eta/edo horrelakoen foku berriak sartu Plan Partzialaren garapenaren ondorioz.
 - Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
 - Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusiak kontuan hartuta.
 - Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenari jarraikiz, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketan egon daitezkeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketa egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua.» "Udalsarea 21eko lan-koaderno" eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketa egokitzeko».
- c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta berariaz zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.
- d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.
- e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzear arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzearen ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako ataletan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, zeinak ebaluazio-prozesuan jorratutako gaitako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko baitu.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultak

Abenduaren 9ko 21/2013 Dekretuaren 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 egun balioduneko epean.

Era berean, organo substantiboak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutako epeen ondorioetarako, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eragindako administrazio publikoen eta interesdunen eskura jarriko ditu planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Hona hemen egindako kontsulten zerrenda:

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Euskadiko Itsasertz Demarkazioa. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.
- Ihobe.
- Kultura Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Azpiegitura eta Lurralde Garapen Zuzendaritza. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ekologistak Martxan.
- Eguzki. Eguzkizaleak Aisialdirako Elkartea.
- Haritzalde Parkeen Lagunak elkarte naturalista.
- Ancora ondarearen babeserako elkarte.
- Serantes basoberritzeko eta hango jarduera soziokulturala sustatzeko Amezti Taldea elkarte.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarren. - Ebazpen hau Santurtziko Udalarari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 8a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Aitor Aldasoro Iturbe

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea

(otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren bidez)